



Amantalen Ahotsa ikuskizuna Victoria Eugenia

36ko gerra emakumeen ikuspegitik jorratzen duen Amantalen Ahotsa ikuskizuna eskainiko dute gaur 20:00etan Donostian. Bertan gerrari buruzko hainbat emakumeren testigantzak eta dantzari, aktorea, musikari, kantari eta bertsolarien saioak tarteatzen dira. **/4 orrialdea**

Gabonetako Haur Parkearen sarrera eta taberna, herriko taldeen esku

Udalak gonbita egiten die herriko elkarte eta irabazi gabeko taldeei

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kiro-lak sailak, herriko irabazi-asmorik gabeko talde eta erakunde ezberdinei, kirol eta kultura taldeei, elkartasun erakundeei eta horrelako elkartei aukera eskaini eta gonbidapena luzatu diete abenduan Michelingo pilotalekuan antolatu ohi den Gabonetako Haur Parkeko (GHP) taberna eta sarrera salmenta kudeatzeko. Lan hori herriko elkarte horietako bati emango dio Udalak eta sos batzuek ateratzeko modua izango dute.

Esan bezala, talde hauek gure herriarentzat burutzen duten lana aintzat hartuaz, Gobernu taldearen helburua

hauetako talde bati diru sarre-ra extra bat eskaintzea litzateke. Era honetara, haien lana erraztuz.

"Eskaintza hobetzeraz eramango duen aukera bat litzatekeela pentsatzen dugu" adierazi dute Udaleko Gazteria, Festak eta Kiro-lak sailako ordezkariak.

Ardurak

Hautatutako elkartearen arduraren artean izango dira GHPko sarreraren kontrola eta tabernaren kudeaketa. Sarre-rak, Gazteria, Festak eta Kiro-lak sailak emango ditu eta helduei salduko zaizkie euro baten truke.

Tabernaren horniketara eta ustiaketa osoa, berriz, taldea-

ren ardura izango da eta irabaziak, oso osorik jasoko ditu taldeak.

Baldintzak

Sailak ohartarazten du, 11 eguneko lana dela bertan burutu beharrekoa. Eta horregatik, interesaturik leudekeen taldeek, lanerako giza baliabide nahikoa izango dutela aurrez justifikatu beharko dute.

Prozedura

Tasio Arrizabalagak saileko arduradunak jakin arazi duenez, deialdi zabala egingo zaie herriko hainbat talde eta erakundeei.

Interesaturik dauden taldeak, urriaren 15a baino

lehen erantzun beharko dute Udaletxeko erregistroan haien eskaria sartuta.

Eskaritan, diru horrekin burutuko lireratekin ekintzak edo proiektuak zein izango diren argi eta garbi zehaztu beharko da.

Proiektuek oniritzia jaso ostean, talde guztien zerrenda bat burutuko da, eta 2011. urteko Gabonetako Haur Parkearen kudeaketa nork burutuko duen erabakitzeko, zozketa bat egingo da.

Zerrenda ondorengo urteetan ere kontutan hartuko da, urtero organismo edo talde ezberdin bati, ordenaren arabera, eskainiko zaiolarik Gabonetako Haur Parkearen kudeaketa. •

Haur txikiak hezteko tresnak aztergai

Azto arratsaldean kultur atxeko hitzaldi aretora hurbildu ziren gurasoek haurrek mehatxu, zigor edo txantaiarik gabe gauzak nola egin ditzaketan ikasi zuten.

Josune Martiarena psikologoak azaldu zuenez egun gurasoen eta haurren nahiak ez datoz bat eta horren ondorioz, zigorrak eta mehatxuak egiten dira. Gurasoak errudun sentitzen dira. Horregatik, egoera horietan gurasoen jarrera aldatu behar dela azaldu zuen Martiarenak. Horretarako haurrekin sortu daitezkeen egoerak aztertu eta zer aldatu daitezkeen ikusi zuten. •



Josune Martiarenak gurasoei haien haurrekin izan ditzaketan arazoei aurre egiteko tresnak nola lortu azaldu zien.

ALBISTEA /3

Ez jakintasuna leporatu dio PSE-EEk Pablo Barriori

ELKARRIZKETA /5

Imanol Arteaga, Suhiltzaile eta Polizien Olinpiadan egon den herritarra

KIROLA /6

Zubietako I. Mendi Duatloia larunbat arratsaldean



Kiribil

HAUR JANTZIAK

Hirukide kideek %15eko deskontua urtean zehar

Etorri ikustera !

Geltoki kalea 17 • Tel.: 943 045949 • 20160 Lasarte-Oria



BERRIA!

Neure kabuz



Kaixo eta agur!

Kaixo irakurle! Iritzi-artikuluak idazteko aukera eskaini didate Txintxarriko lagunek, eta nire iritzi eta bizipenen berri eman-goz ditzut, ahalik eta egokien, zerbaitetarako baliagarria izango zaizulakoan.

Bizitza, alokairuan hartzen dugun esperientzia da. Ezer gabe joango gara, sortu ginen bezalaxe; lana, lagunak, bikotea, etxebizitza, dirua... ez ditugu gurekin eramango. Heriotzak gure lekuan jartzen gaitu, ezer ez baita betiko eta ezer gure. Orain daukaguna orain daukagu, eta bihar... ikusi egin behar! Beraz, zurekiko harremanak ere amaiera izango du, lehenago edo beranduago agur esan beharko ditzut, hori baita kaixo esateak berarekin dakarren zorra.

Inoiz lagun on baten sorbaldan gaina malloz zipiritinduko dut, galtzen zaituztedanean, galduaren penaz eta eginaren pozez. Ez zait ba batere gustatzen filosofatzea!!! Ezagutzen nautenek ondo dakite hori.

Lotura emozionalak dira niretzat askatzen zailenak; Maitemina eta maitea behar izatea nahastu ditudanean, naizena bestearen izatean kokatu dudanean, nire burua-ekin egotea bakarrik egotea dela sinetsi dudanean... Orain badakit maite ditudanak eta nautenak gertu behar eta nahi ditudala, baina nire burua maitezko ez dut inoren beharrik, edo ez nuke nahi, bederen.

Portzieto, plazer handia izango da irakurtzen nauzuela jakitea. Kostako zait onartua ez izatearen beldurra gainditzen, edo politikoki zuzena ez den iritzi bat defendatzen herriaren epaien aurrean, baina hori da nire arronka berria. Gogora dezadan: nor izateko eta este dudana esateko ez dut inoren onepenik behar.

Unai Muñoa

Zorion-agurrak



Manuel

Zorionak! Zure emazte eta semearen partetik. Muxu handi bat.



Garazi

Lau urte! Zorionak osaba Jesus, amona, Judith lehengusua eta Alazneren partetik!



Eneko

Zorionak zure urtebetzean. Muxu handi bat familiaren partetik.



Antonio eta Begoña

Zorionak, urrezko ezteiak egingo dituzuelako urriaren 11n eta 12ko ospakizunean egun on bat pasa, hiru alaba eta biloben partetik.



Ane

Zorionak Ane! Txokolatezko 2 muxu! Aita, ama, Unai eta famili guztiaren partetik.



Maialen

Zorionak printzesa! Bost txokomarrubizko muxuak familiaren partetik.



Aiora

Zorionak jamona!! Iritsi da eguna, 4 urte!! Ilargiraino eta buelta maite zaitugul!



Txema

Zorionak zure emazte, Joana, Enara, aitona amona eta Maiteren partetik.



Miguel eta Margarita

Ez da erraza hain hitz gutxitan gure poza, maitasuna eta esker ona... adieraztea. Zorionak eta muxu handi bat zuen seme-alaben eta biloben partetik.



Amaia

Zorionak politta! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Ohiana eta gurasoen partetik.

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaiaren iraupena 15 minutuko da

Lanegunak	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 116m²-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta. 3 gela, 2 komun, jantzi-gela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute, lñgo de loyola kalera eta geltoki kalera. Sartzeko prest. 330.000euro. Tel: 639 73 84 13
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. 648 614 769
- Bi logeladun pisu alokagai Lasarte erdian. Harremanetarako, 690 066 307.

Lan-eskariak

- Autolaguntza ikasketak dituen gizona pertsona helduak laguntzeko eskaintzen da. Peio, 943 361 018.
- Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Bestelakoak

- Euskara, ingles, matematika, hizkuntza,... eskola partikularra. 693 601 222, 943 36 25 32

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutzeta Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udala

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako
- Zerbitzu 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturutxea 943 376181
- Zerbitzu Sozialak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Munteri AEK euskaltegia 943 372863

Heriotzak

- M^a Angeles Molet Fernandez, urriaren 6an 84 urte zituela.
- Manuel Andres Alvarez Ruiz, urriaren 4an 79 urte zituela.
- Francisco Jimenez Garcia, urriaren 4an 82 urte zituela.
- Adelina Cortes Losada, urriaren 1ean 91 urte zituela.
- M^a Cruz Lizaso Etxeberria, irailaren 29an 63 urte zituela.
- Dolores Alcala Arroyo, irailaren 25an 81 urte zituela.

Jaiotzak

- Xuhar Lucero Borrega, urriaren 1ean.
- Hao Jiang, irailaren 26an.
- Itxaso Iparraguirre Ormazabal, irailaren 25ean.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 7**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 8**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 9**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 10**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 11**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 12**
Urbistondo, San Franzisko 1
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 13**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Udal gobernu berriaren egokitze "moteltasuna" salatu du PSEk

- Barriok ezjakintasunez jokatu eta gezurrak esan dituela dio Zaballosek
- Hiribus-a ez omen zuen ordaindu 2010eko aurrekontua atzera bota zelako

Lasarte-Oriako alderdi sozialistak udal gobernuak egindako adierazpenei erantzuna eman nahi izan die. Jesus Zaballosen hitzetan udal gobernuko ordezkariak eman dako informazioa ez da zuzena eta zenbait gairen inguruan ezjakintasunez jokatu dute.

Bozeramale sozialistak ezjakintasuna leporatu dio udal gobernuari izan ere, bere ustez aurreko urtetan alderdi sozialistak egindako lan guztia ez du behar bezala aztertu. Gainera egokitze denbora bat behar izatea ulergarria da sozialistentzat baina dagoeneko gehiegi dela salatu dute "Udaletxea gelditzen ez den tren bat da eta ezin da hainbeste denbora utzi hau behar bezala gidatu gabe."

Gobermatzeko moduak

Sozialistak gobernuan izan diren urte guztietan egindako kudeaketaren harira, lan egiteko moduak besterik ez direla argitu du Zaballosek.

Orain arte udal barruko egiteko moduak alkatearen gehiegizko kontrolean oinarritzen zirela salatu zuen Pablo Barrio alkateak eta hau sozialistentzat, lan egiteko beste modu bat besterik ez da. "Guk alkatearen figura udaleko ordezkari goren eta kudeatzaile nagusi bezala ulertzen dugu. Berak dauka udaletxean gertatzen den guztiaren ardura bai onerako, baita txarrerako ere eta horretaz gain, berari dagokio udal teknikari guztien lana koordinatu eta kudeatzea." Zaballosek salatu du oraingo gobernuaren funtzionatzeko era beste bat izatea nahi badute, beraiei dagokie barruko lan guztia euren irizpideen arabera gidatzea.



Jesus Zaballos haserre azaldu zen udal gobernu berriak egindako agerraldian esandakoekin.

Dirulaguntzen gaiari helduz, gobernu sozialistarekin irizpiderik gabe banatzen zirela salatu zuen udal gobernuak. Egoera hau ekiditeko aurrerantzean neurriak hartuko zirela adierazi zuten eta horretarako ordenantza zehatz bat onartuko zutela. Sozialistek lan hori eginda dagoela diote. Aurreko legealdian diru laguntzen inguruko erreglamenduaren berridazketa bat aurkeztu eta onartu zuten eta "aplikatu besterik ez dute egin behar" hauen hitzetan.

Bere garaian Somotoko laguntzak ikertzeko lanak martxan jarri zirenean, kooperatiborako diru laguntzak banatzeko irizpideak ezartzea ez ezik, gainontzekoak emateko pautak jartzea eskatu zutela azpimarratu dute sozialistek. Izan ere, dirulaguntzen inguruko legedia nahiko berria zen eta "ez zigun denborarik eman

ezartzen zen diru laguntzen inguruko ordenantza landu eta indarrean jartzeko."

2008ko aurrekontua

Ekonomian, 2008. urteko aurrekontuarekin segitzea, herentzia larria zela azpimarratu zuten udal gobernutik. Honela, 2011. urtea bukatzeko Plan Ekonomikoa egin eta 2012. urteko aurrekontuan lanean ari direla aurreratu zuten. Sozialistentzat gezurretan ari dira, "guk 2010. urteko aurrekontua eginda utzi genuen, oposizioak ez zuen onartu eta bertan behera geratu zen baina hori dute gure lana". Datozen urtetarako egindako aurreikuspenak ere gobernu berriaren eskuetan daudela dio Jesus Zaballosek.

2011. urteko aurrekontuaren berridazketa hauteskundeak zirela eta ez aurkeztea erabaki zutela argitu nahi izan du talde

sozialistaren bozeramaleak, "ulertzen genuen aurrekontuak onartuta, erabakiak hartzeko oso mugatuta aurkituko zela sartzen zen udal gobernu berria". Gainera oraindik hau aurkezteko berandu ez dela azpimarratu du.

Hiribus-a

Hiribusaren zerbitzua ordaindu gabe egotearen arrazoia, gastu hau 2010eko aurrekontuetan zegoelako da. "Aurrekontua beste udal taldeek onartu ez zuten, ezin izan zen zerbitzua ordaindu, ez zegoen horretarako beste partidarik".

Arrazoiak jakiteko alderdi sozialistarekin biltzeko eskaera egitea zutela adierazi du Zaballosek "edozein zalantza argitzeko prest gaude beti, baina publikoki gezurrik ez esatea eskatzen diogu gobernu berriari".

OSPAKIZUNA

DYA erakundearen 25. urteurrenko bazkaria

Aurten 25 urte beteko ditu DYA errepublikaren laguntza eskaintzen duen erakundeak eta azaroaren 5an, besteak beste, bazkari batekin ospatuko dute urteurrena. DYAko bazkide eta bazkide ohiak daude gonbidatuta eta informazio edo argibide gehiago eskuratu nahi dutenek DYArekin 943 46 46 22 telefono zenbaki nagusira deitu beharko dute. 1966an sortu ziren DYAko lehen taldeak Bizkaian eta urte hauetan laguntza eman duten guztiak dute ospakizunaren parte hartzeko aukera. •

IKASTAROA

Helduentzako dantza ikastaroa hastear

Erketz Dantza Lagunak jakinarazi dute dantzatzen ikasteko saioak laster hasiko direla. Ikasturtea urriaren 4ean, asteartean, hasiko dute eta antolatzaileek adierazi dutenez, dantzan ikasi nahi dutenek oraindik badute aukera ikastaro honetan parte hartzeko. Taldea ez da erabat osatu, lekuak dago eta interesatuak entsegu egunean bertan Zumaburuko gimnasioan 20:00etatik 21:30era azaldu eta izena eman beharko dute. •

MARRAZKETA

Marrazki eta margo eskolan lekua dago

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkartearen marrazki eta margo eskola martxan da dagoeneko baina oraindik plazak badaude. Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira ikasturtean zehar. Hauetan parte hartzeko interesa dutenok kultur etxeko 2. solairura jo behar dute izena emateko. •

LASARTE-ORIAKO EAJ-PNV

Posta bidezko bozka

Herriko EAJ-PNV alderdiak azaroaren 20ean ospatuko diren hauteskunde orokorrak direla eta, hauetan posta bidez bozkatzeko dagoeneko epea zabalik dagoela gogoratu nahi du. Posta bidezko botoa bideratzeko laguntza edo aholkularitza behar izanez gero, hauekin harremanetan jartzeko ondorengo telefono zenbakiak erraztu ditu 635205393 eta 656 789391. •

Zarataren aurkako pantailen eskaera

Zarataren aurkako pantailak jartzeko premia aldarrikatu du Lasarte-Oriako PSEk, eta hain juxtu hori eskatu dio Pablo Barrio alkateari, honek eskatu dezala Foru Aldundian lan horiek egiteko: Konkretuki zera proposatu dio alderdi sozialistak Barriari, "lehen bait lehen" eskaera egin diezaiola Gipuzkoako Foru Aldundiari N-1 ean jarriko diren pantaila akustikoen lanak hasteko.

Aldundiko Aurrekontu Orokorren tramitatzeko prozesuan zeudela, batzarkide sozialistak, Zaballos alkatea ohiarekin eta zuzenketa bat aurkeztu zuten pantaila akustikoen jartzeko aurreikusitako gastua (500.000 euro) 150.000 eurotan gehitzea. Honi esker ziurtatzen ziren Loidi kalea, Oztaran, Arranbide Orieta eta Antxisu Bailara inguruan, errepidetik datozen zaratak gutxitzen dituzten pantaila akustikoen jartzeko.

Jesus Zaballos alkate ohiak berriro gogoratu duenez, "Lasarte-Oria da kutsadura akustikoa gehien pairatzen duen herrietako bat, bai honen portzentaje altuengatik baita honen eragina pairatzen duen jende kopuruarengatik ere. N-1 errepideak herria bitan banatzen du eta gainera zuzenki jasaten ari da Donostia hiriburuko bigarren ingurubidearen eraikitzearen ondorioak".

"Arrazoi hauek direla medio, udal gobernu berriak Aldundiari pantaila hauen jartzeko lanak berehala hasteko eskaera egitea nahi dugu. Izan ere 2011 urtea bukatzean da eta oraindik lanak gauzatu gabe daude" adierazi du Zaballosek. Bere iritziz, "pena litzateke, Aldundiaren utzikeriarengatik bizilagunek N-1 errepideak eragiten duen zarata denbora luzeagoan pairatu behar izatea". •

Miren Artetxe Bertsolaria eta Amantalak elkarteko kidea

“Amantalen Ahotsa lanean 36ko gerra emakumearen ikuspegitik kontatzen da”

■ Amonen hitz eta pasarteei ukitu pertsonala eman die hainbat artistek ■ Oinkari dantza taldea, Maialen Lujanbio, Amaia Zubiria eta Kokein taldeko musikariak arituko dira besteak beste

Miren Artetxe, filologo eta bertsolariak, "Amantalen Ahotsa" ikuskizunaren antolaketan dihardu eta berak eman digu gaur bertan arratsaldeko Setan Victoria Eugenia antzokian estreinatuko den lanaren berri. Euskal Herri osoko emakumeek 1936ko gerra eta gerra osteari buruz egindako kontaketa dira ikuskizunaren ardatzak, emakumezko bertsolari, kantari, aktore, dantzari eta musikari ezagunen saioekin batera. Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritza artistikopean besteak beste, Maialen Lujanbio, Amaia Zubiria eta Ainere Tolosak parte hartuko dute emanaldian.

Jon ALTUNA IZA

Ahotsak proiektuan aritu da lanean orain gutxi arte, Miren Artetxe, irailan Garabide, hizkuntza gutxituekin lana egiten duen Gobernu Kanpoko Erakundearen hasi da, baina jarraitzen du Amantalak elkartearen eta urriaren 7an ostiralean arratsaldeko 8etan Victoria Eugenia eskainiko den Amantalen Ahotsa ikuskizunaren antolaketan.

Zer da Amantalen Ahotsa?

Ikuskizunak batera doazen bi parte ditu, batetik bizkarrezurra dira Ahotsak proiektuan gerra garai eta gerra ondorenari buruz emakumei egindako ehundaka elkarrizketetatik gidoi baten arabera hautatutako pasarte batzuek, eta bestalde, gidoi horri jarraituz, parte hartzen duten musikari, kantari, aktore, bertsolari eta dantzari saioak.

Zuk konkretuki zer egin duzu?

Ni antolakuntza batzordean nabil. Ideia sortu zenean Ahotsak-en nibilen lanean, hasieran lankide batzuen arteko kontua zen eta geroztik lana aldatu dut, baina proiektuaren antolakuntzan jarraitu.

Gerra eta gerra oste garaiak kontatzen dira emakumearen ikuspegitik?

Konturatzten ginen gerra garaia eta ondorenez ikasi edo aditu genuena, soldaduak, frentea, produkzio industrialak,... dena delakoa, gehienbat edo ia ia dena gizonen ikuspegitik, gizonen ahotsetik eta gizonen bizitaketatik jasotzen genuela. Aldiz, politika eta fronte kontuetaz kanpo bada beste aspektu bat: etxeetan jan egin behar zen, lo,... sostengu lana emakumeek egin zuten; emakumeak eta

gerra aipatu izan direnean, badirudi beti soldadu bezala gerrara bolondres joandako emakumearen istorioa kontatu behar zela, baina berez emakumeek egunero hartzen zuten parte familiak aurrera eramaten, emakumeen esku zen familia askoren kohesioa...

Gizonak gerrara joaten baziren, etxeko edo baserriko lanen kargu emakumeak ziren,...

Bai, eta gizonak elbarri itzultzen baziren emakumeek egin zuten beraien lana ere. Hor zeuden: gizonak bezala informazioa maneiatzen zuten, ezker eskua erabili behar izaten zuten, herrietan bizitza ez zen erreza, eta konplexutasun guzti horren barranean emakumeek ere bere papera bete zuten.

Kontakizunak, gogor xamarrik al dira? Hunkigarriak, agian?

Egia esan denetik dago, ez genuen nahi eta, ez melodramatik jo, ez erromantizismo hutsetik, ez idealizatze batetik. Beraz interesgarriena beraiek zer kontatzen zuten ikustea eta tonu diferenteetan kontatzea zela iruditu zitzaigun. Badaude umorezko pasarteak, badaude tragikoak eta badaude tribialak, hutsalak, arruntak, liraterkeenak. Adibidez batek dio: "nire anai guztiak badakite igeria, eta nik ez, ze emakumeek ez genuen igeri egiten ikasten". Besterik gabe. Baina izan daiteke gerrako pasadizo gogorren bat, edo grazioso ere bai.

Oinarrian beraz Ahotsak.com web gune eta proiektua dago. Zein iritzi duzu proiektuari eta egiten duen lanari buruz?

Esango nuke beste ezer baino lehenago beharrezko lan bat dela. Azken batean gurekin gaur egunean bizi den generaziorik zaharrena da, ez bakarrik



Amaia Artetxe, ezkerretik hirugarrena, Amantalen Ahotsa ikuskizuna antolatzen aritu da. Gaur eskainiko da 20:00tan Victoria Eugenia.



gerra ezagutu duen azken generazioa, baizik eta euskara ia hutsean bizi izan den azken generazioa, eta ahozketan ia hutsean bizi izan den azken generazioa. Alegia, eskolan hasi ginenetik formatu idatzian jaso dugu informazioa, eta idatziz maneiatzen ditugu oraindik notiziak edo dena delakoa, bilerak eginez gero akta idatziz jasoko dugu; ez gara buruz horren laburpen bat egiteko kapazak, jendeari kontatu, hauek buruan gorde eta horrekin lana egiteko. Eta gure aitona amonak horrela bizi izan dira ia beraien bizitza guztian, ahoz eta euskaraz, eta guk baino kapazitate askoz handiagoa dute zenbait gauzatan. Ondare eta aberastasun handia da hori.

Gaur egun irakaspen bat izan al daiteke ordukoa, amonak hauek kontatzen dutena?

Niretzat bai. Zein garen jakiteko nondik gatozen begiratzea lehenengo pausua da edo pausu bat behintzat bai.

Amonen hitzak dira, baina zer bait berria eta modernoa egin nahi izan duzue...

Kontua da, ez geniola omenaldi itxura klasikorik eman nahi, hasieratik ikuskizun bezala planteatu genuen eta ardatza transmisioa izatea nahi genuen: Gaia, beraiek transmititu digutena eta transmititu ez digutena, izatea eta ez besterik gabe monografia bat, 36tik 70. hamarkadara, hau pasa zen eta hau bizi izan zen.

Ez. Nola bizi du Maialen Lujanbiok oholta gainean hori? edo fadoak kantatzen dituen Soralezuko emakume batek? edo zer lotura dauka horrekin Amaia Zubiriak? Bakoitzak bere ukitua ematea nahi genuen.

Victoria Eugenia estreinatuko duzue ostiralean, gero beste emanaldirik egiteko asmorik?

Eskaintzak jasotzen ari gara, baina oraingoz egun horretarako pentsatu eta diseinatu den ikuskizuna da; artista

edota antolatzaileei ere egun baterako konpromisoa eskatu zitzaie. Orduan, aztertuko ditugu, baina hori dena larunbatetik aurrera izango da.

Artisten artean, zer nabarmenduko zenuke?

Ezagunenak Maialen Lujanbio bertsolaria, Amaia Zubiria kantaria, Ainere Tolosa, Maite Bastos eta Itziar Ituño aktoreak dira, baina aldi berean azpimarratuko nituzke Ariadne Unamuno eta Ain1 taldea. Ez dira hain ezagunak, baina sorkuntza propioa egingo dute ekitaldi horretarako eta aukera polita da ezagutzeko. Batetik kalitatea ziurtatu nahi izan dugu baina bestetik artista berriei tokia egin ere bai.

Amantala elkarte sortu duzue?

Gure ikuskizunak euskarri juridikoa izateko sortu genuen, laguntzak eskatu ahal izateko.

Ahotsak izeneko emakumeen beste talde bat ere izan zen, alderdi-ideologia politiko askotako elkartu ziren Euskal Herriko gatatzari irtenbidea bilatzeko, hitz eta lan egiteko...

Ez dauka inolako loturarik. Ahotsak.com proiektuan lanean ari ginenok Amantala hartu genuen hasieratik sinbolo bezala, eta horrela deitu genion elkarteari. Gero ikuskizunari izena jarri behar genion eta berez etorri zitzaigen Amantalen Ahotsa. •

Imanol Arteaga/ Suhiltzaile olinpikoa

“Ezin parte hartuak sutan jarri ninduen”

Suhiltzaile eta polizien joko olinpikoetan triatloi proba bertan behera geratu zen urakanarengatik

Nerea EIZAGIRRE

Duela aste batzuk Imanol Kaskante Lasarte-Oriako udaltzainak New Yorken egin zen Suhiltzaile eta Polizien Joko Olinpikoetan parte hartu zuela argitaratu genuen. Hala baina, herriar bat ere bertan egon zen, Imanol Arteaga.

Tolosan dago suhiltzaile lanetan eta New Yorkera joan zen triatloian eta igeriketan parte hartzera. Tamalez, Irene urakana zela eta, triatloieko proba bertan behera geratu zen, Artegak berak kontatu digunez.

Zer dela eta erabaki zenuen olinpiadan partehartzea?

Diputazioko suhiltzailea naz eta denbora asko egin dut interino bezala. Tartean Ordiziako parkean urte batzuk egin nituen eta han dagoen bat beti joaten da joko olinpikoetara.

Orduan esan zidan eta nik aurrerago egingo nuela esan nion, plaza lortutakoan edo. Plaza lortu nuenean hurrengo New Yorkekoa zen eta animatu egin nintzen.

Nola prestatu zenuen proba?

Hasiera batetik, bi probetara apuntatu nintzen. Triatloia bat, hori egiten dudalako eta prestakuntza bideratua nuelako: uztailean bukatu beharrean, abuztu amaiera arte luzatu nuen. Baina bereziki ere ez.

Eta gero triatloian igeri egin behar denez, hori izan zen bigarren proba.

Eta bidaia?

Bidaia, inskripzioa,... guztia nik egin nuen. Lan asko da.

Bizikleta eramateko ere hotelek arazoak jartzen dituzte, ezin dira sartu. Beraz, apartamentua bilatu behar izan genuen. Topatu genuen bat nahiko txukuna.

Zure bizikleta eraman zenuen, beraz?

Han alokatzea bazegoen, baina kanpotik gindoazenak asko ginen, 700 bat edo, eta alkilatze kopuru bat dago.

Batzuk alokatu zituzten, nik nirea eraman nuen. Horretarako maleta erosi behar duzu eta apartamentu baten muntatu.

Prestakuntza baino lan gehiago ematen du guztiaren koordinazioak.

Lasarteoriatar bakarra izan zinen. Baina eremukoak zenbat joan zineten?

Lasarte-Oriako udaltzaina joan zen, baina lasarteoriatar bakarra, nik dakidala. Bestela, Gipuzkoatik bi suhiltzaile joan ginen, nire laguna eta biok. Ertzainak sei-zortzi. Euskal Herri mailan, Bizkaiko suhiltzaile dexente. Haiek egutegiakin eta dirua ateratzen dute eta mordoska doaz beti.

Nolakoa izan zen New Yorkeko bidaia?

Azken finean ez da proba ofiziala, kirolaren inguruan egiten den festa antzekoa da.

Gogo handiekin joan nintzen partehartzera eta bestela ere, disfrutatzera. Gainera, nire neska eta koadrilako beste bikote bat joan ziren. Oporretara bezala joan ginen.

Alde horretatik, polita izan zen. Ondo joan zen dena.

Nabaritu al zenuten urakana?

Bai, larunbatean iritsi eta igande goizean izan zen, 12 orduko gauza.

Euria, batez ere, gauean egin zuen eta ez genuen nabaritu. Haizea gauean hasi eta igande eguerdira arte egin zuen. Ikaragarri ez, baina dexente.

Guztia itxi zuten. Kalera atera eta New York-en inor ez ikuste, harrigarria zen. Denak itxita, metrorik ez zegoen, taxirik ez zebilen... Ez zegoen ezer. Poliziarik ere ez! Normalean bazter guztietan zeuden.


Gauzak horrela denbora izan al zenuen bertan prestatzeko?

Hemendik atera eta hegazkinean izan genuen urakanaren berri. Hara iritsi eta lehenengo egunean, inaugurazio hitzaldian megafoniak esan zuten larunbat eta igandeko probak bertan behera geratzen zirela. Eta astelehenean edo noiz hasi ikusiko zutela. Nik proba igandean nuen eta beraz ezin izan nuen egin.

Idea zen han geure kabuz bizikletan ibili eta igeri egitea. Baina deskolokatu nintzen eta ez nintzen entrenatu.

Ezin izan zenuen zure gustuko kirola egin, beraz?

Ez, gainera ezin parte hartzeak sutan jarri ninduen. Beherakada txikia izan nuen triatloia bertan behera geratzen zela esan zutenean. Nire buruari galdetu nion, bizikleta hona zertarako ekarri dut?



3,2 kmko igeri proba polita izan zela aitortu du Imanolek. Erlojupeko proba triatloieko arantza kentzeko egin zuen. IMANOL ARTEAGA

Azkenean igeriketa eta bizikletan erlojupekoa egin nuen, gure proba egin ez zenez triatletei utzi egin ziguten eta, moldaketa egin zuten.

Hala ere, ez zekiten ziur proba egingo zen edo ez.

Eta nola joan ziren probak?

Igeriketa proba polita izan zen. Queens distritoko hegoaldean, itsasora ateratzen den hondartzetan.

Probak 3.200 metro zituen, 2 milia (ez dakit lurrekoak edo itsasokoak). Baina gutxi gora 3.200 metro.

Beldur ginen, urakana pasa eta sei egunetara nolako egoeran egongo ote zen. Baina oso ondo zegoen, zerbait pasa zela nabari zen, baina beste-rik ez.

Eta erlojupekoan, zer moduz?

Antolakuntza arazoak izan genituen. Triatleta askok izena eman genuen bat-batean eta beraz, antolakuntzak espero baino partehartzaile gehiago batu ginen.

Aerodromo batean zen proba eta hara joateko autobus bat zegoen aurreikusia. Partehartzaile gehiago ginenez, ez ziren batean sartu eta bi joan-etorri egin behar izan zituen.

Gu metroz joan ginen. Iritsi ginean jende pila falta zen. Hala ere, geundenekin hasi ziren. Bakoitzak bere ordua zuen eta bertan ez zudenek aukera galdu zuten.

Azkenean, bertan ginen guztiek proba egin

eta lehiaketa bukatutzat genuenean, iritsi zen bigarren autobusa. Eta haientzat beste irteera ordena egin eta lehiatu ziren.

Igeriketako antolakuntza oso ona izan zen bezala, bizikletakoa desastrea izan zen.

Baina nola ibili zinen proban?

Niretzat oso proba motza zen, dena eman nuen eta leher eginda bukatu nuen. 16 kilometro ziren eta 20 minutu egin nituen. Triatloiean distantzia olinpikoa zen, milia bat eta piko, eta normalean bi ordu egiten dituzu.

Nik ez nuen gustura egin. Baina triatloieko arantza kentzeko bizikletan ibili nintzen behintzat.

Esperientzia polita izango zen hainbat jende ezagutzea, ezta?

Bertakoak uste dut ez zirela enteratu. Espainiar Estatutik jende asko joan zen, hirugarren edo laugarren herrialdea da parte hartzaile kopuruan. Orduan, bazter guztietan uler-tzen zinen. Katalanak ikaragarri zeuden, madrilloak ere bai. Beti zegoen baten bat, *nongoa zara?* galdetzen. Alde horretatik, jendea oso jator.

Hemendik bi urtera errepikatzeke asmoa al duzu?

Bai. Hurrengoa Ipar Irlandan da, Belfasten. Bertara fijo noala. Gertu dago eta polita izan behar du. •



Zubietako I. Mendi Duatloia larunbatean

■ 16 urte gorako duatleta guztiei irekia dago proba ■ Euskal Herriko txapelketa da jokoan

Euskal Herria Kirola Erakundearen eta Zubietako Lantzen taldearen laguntzaz Zubietako I. Mendi Duatloia jokatuko da larunbatean 16:00etatik aurrera. Antolatzaile lanetan ibili den Endika Gartzia herritarrekin bildu gara probari buruz gehiago jakiteko.

Hiru eremu

Endikak azaldutakoaren arabera, Zubietako probak hiru eremu izango ditu. Irteera eta helmuga Zubietako udaletxe aurrean izango dira.

Lehenengo 4,8 kilometrotako mendi lasterketa izango dute Santuenea aldera egin eta mendian sartuta.

“Lehenengo 2 kilometroak nahiko lauk dira, beti gorako aldapa bat dago,” adierazi du. Bigarren eremuan, mendi bizikletaren zatia izango da, honetan 15Km egingo dituzte Hipodromorantz Errealaren zelaialdera.

“Bi itzuli dira eta teknikoki ez zaila. Bizikleta gainean egiteko modukoak dira ibiltzen den jendearentzat. Azken zatia gogor xamar egin daiteke, baina fisikoki ongi prestatua dagoen pertsona batek ez du arazorik izango,” aipatu du Endikak.

Hirugarren zatian, 2,5 kilometrotako lasterketa egin behar dute. Zubietatik Araeta jatetxera igo eta ezkerrean dagoen baserri aurretik bidea hartu eta behera egingo da.

Gero bidegorritik berriro Zubietara bueltatzeko.

“Hau alfaltoan izango da. Ez da zaila, aldapa pixka bat igo behar da. Baina gehiena laua da. zirkuitu honi bi buelta eman behar zaizkio,” azaldu du.

Endikak onartu duenez, “fisikoki prestatua egon behar da proba bukatzeko”.

Hala ere, partehartzaileek helmugan indarrak berreskuratzeko “fruta, yogurrak, edariak” izango dituztela jakin arazi du.

Mendi Duatloi Zirkuitua

Zubietako proba aurten sortu den Euskal Herriko I. Mendi Duatloi zirkuituaren barruan dago.

“Lasarten bi aldiz egin genuen duatloia. Arriarangoek ere bi urtetan egin dute. Eta Ibarrako jendea ere animatu zen. Denon artean mugitzen hasi ginen zirkuitu txiki bat egiteko asmoz eta azkenean zortzi proba batu ditugu,” azaldu digu Endikak.

“Euskal Herrian, Iparraldean izan ezik, kokatzen dira: Gipuzkoan lau, Bizkaian bi, Araban bat eta bestea Nafarroan,” aipatu du.

Dagoeneko bi proba egin dira, Ibarra eta Arriaranen eta Endika Gartzia hirugarren postua du sailkapen nagusian.

Euskal Herriko txapelketa

Era berean, lasterketa hau Euskal Herriko Txapelketa ere



Zubietako inguruko mendietan barrena ibiliko dira lasterka eta mendi bizikletan larunbatean proban parte hartzen dutenak.

izango dela adierazi du.

Txapelketan hiru maila izango dira, 23 urte azpikoa, elite eta 40 urte gaineko *master 40* maila bai gizon, baita emakumeetan ere.

Hala ere, “denentzat irekia dagoen proba da, beti ere 16 urte gorakoa bada. Probak berez ez du inongo klasifikazio berezirik. Gainera, edozein izan daiteke Euskal Herriko txapeldu,” aipatu du.

Euskal Herriko I. Mendi Duatloi zirkuituko lehenengo bi probetan “aurrean ibili den jendea egongo da, baina inguruko jende popularra ere.”

Sariak

Sariei dagokionez, lehen hirurantz, neska eta mutil, diru sariak egongo dira.

Bestalde, Euskal Herriko kirolak erakundeak trofeoak eta txapelak emango dizkie Euskal Herriko txapeldunei.

Honetaz gain, hainbat zozketa izango dira partehartzaileen artean: afariak, parapenteko hegaldiak, kirol material, etab.

Izena ematea

Proban izena eman nahi duenak gaur du internet bidez egiteko azken eguna, “mendi-

duatloia.com orrialdean egin behar du eta inskripzioko 15 euroak orrialdean aipatzen den kontu korronte zenbaki batean sartu behar ditu.”

“Gehienez 190 edo 200 pertsonarentzako tokia dago. Eta pixkanaka jendea mugitzen doa,” aipatu du Endikak.

Dena den probarako plaza libreak geratuko balira, egunean bertan ere izena emateko aukera izango dela azaldu du herritarrek, “14:00etatik aurrera dortsalak banatan egongo gara. Orduan eman dezakete izena, 15:30ak baino lehen.” •

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 08

10:00etan, Texas Lasartearra-Euskalduna (I. Kadetea) Michelinen.
11:30ean, Ostadar-Afarga (Infantil Txikiak) Michelinen.
15:30ean, Ostadar-Afarga (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.
17:15ean, Ostadar-Beti Ona (Erregional Goren) Michelinen.



11:30ean, Usurbil-Ostadar (I. Kadetea) Harane, Usurbilen
12:00etan, Beasain-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila) Igartzia, Beasainen.
12:15ean, Hernani-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Zubipe, Hernanin.
17:00etan, Afarga-Ostadar

(Emakumezkoen Erregionala) Rezola, Donostian.

18:30ean, Segura-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Alustiza, Seguran.

Igandea 09

10:30ean, Ostadar-Amara Berri (I. Erregionala) Michelinen.
12:15ean, Texas Lasartearra-Sporting de Herrera (I. Jubenila) Michelinen.

■ ARETO FUTBOLA ■

Larunbata 08

16:30ean, ISU Lehoak-Uxoia (Euskal Liga) Kiroldegian.

19:30ean, Bilbo-Buruntza K.T. Aldaz H.K. (Nazional B maila) San Ignazio kiroldegia, Bilbon.

■ PILOTA ■

Ostirala 07

19:00etan, Ziotza-Intza

(Eskuz binaka, I. mailako kadetea) Intxaur, Zizurkilan.

Larunbata 08

16:00etan, Intza-Azkoitia I (Eskuz binaka, III. mailako seniorra) Michelingo pilotalekuan.
16:00etan, Intza-Aurrera Saiaz 2 (Eskuz binaka, I. mailako seniorra) Michelingo pilotalekuan.

■ ATLETISMOA ■

Igandea 09

11:00etan, herriko hainbat korrikalarik 3 Hondartzetako XXII Amstel krossean parte hartuko due, Donostian.

■ DUATLOIA ■

Larunbata 08

16:00etan, hainbat herritarrek Zubietako I. Mendi duatloian parte hartuko dute, Zubietan.

Kiroletako oharrak

Master ataleko entrenamenduak

Buruntzaldea Igeriketa taldeak jakin arazten du master ataleko entrenamendu egunak eta orduak erabaki dituela. Egunak astelehena, asteazkena eta ostirala izango dira. Orduetegiari dagokionez, hiru daude aukeran: 7:30-8:30, 16:15-17:15 eta 20:15-21:15.

Hauetan parte hartu nahi duten herritarrekin bilera informatibo bat egin nahi du Igeriketa taldeak master atalaren inguruko antolaketaren berri emateko. Bilera urriaren 15ean izango da, larunbata 12:30etan, Lasarte-Oriako osasun zentroaren aurrean.

Inskripzioa bertan egin ahal izango da edo bestela astelehenetik ostiralera bitartean 18etatik 21etara Lasarte-Oriako igerilekuan Borjagatik galdetuz. Entrenamenduak urriaren 17an hasiko dira.

Futbol porra 2011-2012

Ostadar S.K.T.-k antolatzen duen futboleko porrari buruz eskaini dugun informazioa akatsa dago.

Txartelak jasotzeko azken eguna urriaren 15a izango da eta ez 8an TXINTXARRIKO aurreko zenbakietan argitaratu dugun bezala.



Egunero

Erakusketa

DIEGO LETAMENDIA BELZUNCEREN erakusketa zabalik da urriaren zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Ostirala, 7

Kontzertua

LOW RIDERS taldearen rock emanaldia Xpression! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. KULTURETXEKO KAFETEGIAN. **20:00etan.**



Metal-rock gaua

Usurbilgo SAI eta BLACK ABSINTHE taldeen eskutik, metal-rock gaua izango da ABEND KAFE-ANTZOKIAN. **00:00etan.** EUSKARAZ



Ilusioa eta magia Jalgi kafe antzokian

Artxila murtxila hitzekin helduentzat egin duen ILUSIOA magia ikuskizuna ekarriko du TXAN MAGOAK Lasarte-Oriara. Ez du behar tresna askorik, are gutxiago tramankulu arraro edo mekanismo zailik. Izan ere, sinetsita dago magia, inon gertatzekotan, ikusleen baitan gertatzen dela, haien ilusioak eraginda.

OSTIRALA, URRIAK 7
22:30EAN

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Larunbata, 8

Berto-saioa

G.PUNTUA, Gipuzkoako bertsolari txapelketako FINAL ZORTZIRENEKO SAIOA. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegi, Iñaki Apalategi, Amaia Iturriotz, Oihana Iguaran eta Andoni Otamendi lasarteoriarra. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:30ean.** Sarrerak, www.gpuntua.com-en.

Igandea, 9

Zinea

Haurrentzako zinema atalean, "EL ORIGEN DEL PLANETA DE LOS SIMIOS" pelikula eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan.** Sarrera, **3,30 euro.** GAZTELANIAZ



Osteguna, 13

Bideoforuma

Euskal Rockaren hastapenak errepasatzen dituen SALDA BADAGO dokumentala eskaini-

ko da, ARGIA EGUNAREN barruan. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean,** EUSKARAZ



Larunbata, 15

Dantza

ION MUNDUATE KONPAINIAK "SIN TÍTULO, EN COLORES" lana eskainiko du, Lasarte-Oria dantzan ekimenaren bigarren saioan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **20:00etan.** Sarrera, **6 euro.**

Igandea, 16

Zinea

"LOS PINGÜINOS DEL SR. POPER" filma ikusgai izango da, haurrentzako zinea atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan,** GAZTELANIAZ. Sarrera, **3,30 euro.**



Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Oharrak

Marrazki eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrazki eta margo eskola martxan da dagoeneko, eta oraindik plazak daude.

Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. Solairura jo behar dute.

Udaleku eta Udako Txokoe-tako arropa galdua

Udako txoko eta udalekuetan egon diren haurren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke Ludotekara.

Arropa urriaren 14ra arte jaso ahal izango da asteleheneretik ostiralera arratsaldetan.

Hezkuntza iraunkorra

Danak Kide guraso elkarteak 50 urte baino gehiagoko pertsonen hezkuntza iraunkorrerako ikastaroa antolatatu du.

Ikasturtea urriaren 18an hasiko da eta 2012ko maiatzaren 17an izango du amaiera.

Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko elkarteak telefono zenbakira, 943 371 616, deitu behar dute interesatuek, asteleheneretik ostegunera, 10:30etik 12:30era.

Artista eta musikariei deialdia

Xpressionk Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

Elkartearekin harremanetan jartzeko jokin@xpressionk.net helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak herritarrek

animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitezte!

Irakokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalarri herri-tarren parte hartzea sustatzeko irakokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Iratzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Nafarroa Oinez-era autobusa

Ttakun K.E.-k urriaren 16an Tafallan antolatu den Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu du. Goizeko 09:00etan aterako da ohiko lekutik eta buelta 19:00etan izango da.

Txartelak Jalgi Kafe antzokian eta Ttakun-en daude eskuragarri. 14 euro balio dute txartelek eta elkarteak bazkide eta gazteentzat 12 euro dira, beti ere, Ttakuneko bulegoan erosten badituzte.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu: telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Gpuntua, Gipuzkoako bertso txapelketako kanporaketa interesgarria Lasarte-Orian

- Andoni Otamendik kantatuko du Kultur Etxean larunbatean arratsaldeko 17:30etan hasita
- Gipuzkoako Txapelketako final laurdenetarako txartelak asteburu honetan erabakiko dira

Asteburu honetan erabakiko da G puntua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren final laurdenetan kantatuko duten bertsolarien zerrenda. Guztira 24 bertsolari pasatuko dira final laurdenetara, eta azken bi kanporaketa erabakiorrak larunbatean Lasarte-Oriako kultur Etxean eta igandean Irungo Amaia Antzokian egingo dira. Amaia Agirre sailkatu da jada; Ane Labakak eskura du hurrengo faserako txartela nahikoa baitu bi kanporaketa hauetako batean bertsolariaren batek berak baino puntu gutxiago eskuratzea; Unai Muñoa eta Unai Gaztelumendi ere asteburuko saioen zain dira sailkatuko diren jakiteko.

Jon ALTUNA IZA

Andoni Otamendi lasarteoriatarak kantatuko du bihar larunbate arratsaldeko 17:30etan Manuel Lekuona Kultur Etxean, Gpuntua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako seigarren kanporaketan. Haitzol Olaiz izango da gai jartzailea eta Andoni Otamendirekin batera kantatuko dute Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi, Amaia Iturriotz eta Oihana Iguaran bertsolariek.

Aipagarria da Lasarte-Oriako saioen kantari emakumezko gehiago direla gizonezkoak baino eta Andoni Otamendik "etxean" kantatuko duela.

Earra bertso eskola

Saioa antolatzen aritu da, Gipuzkoako bertsozale elkartearekin batera, Ttakun Elkarte-ko Earra Bertso Eskola.

Saioarako sarrerak ostiralean eguerdiko 12ak arte daude salgai www.gpuntua.com helbidean, eta gelditzen direnak kultur etxeko leihatilan jarriko dira salgai larunbatean saioa hasi aurretik, 16:30etatik aurrera. Txapelketari buruzko informazio guztia ere aipatutako webgunean bertan eskuratu daiteke, (sailkapenak, saioak, parte-hartzaileak...).

30 lagunek kantatuko dute final laurdenetan eta sailkatuak daude jada, duela lau urte finalean kantatu zuten Jexux Mari Irazu, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Jon Martin eta Iker Zubeldia; final zortzirenetako kanporaketak irabazi dituzten, Iñigo Mantzizidor Mantxi, Arkaitz Oizartzabal Xamoa, Nerea Elustondo, Beñat Lizaso eta Jokin Uranga; txartela lortuko dute larunba-

tean Lasarte-Orian eta igandean Irunen kanporaketan nagusi izaten direnek, eta beste 17 postu erabakiko dira puntuen arabera.

Sailkatuta daude pilatu dituzten puntuei esker, Iñaki Gurrutxaga, 495.5, Iñigo Izagirre 494, Agin Rezola 491, Amaia Agirre 482.5, Ander Lizarralde 471, Nahikari Gabilondo 469 eta Felix Zubia, 464.5 eta zerrendan hurrengo da Ane Labaka 463,5 punturekin. Beraz, geratzen diren bi kanporaketetan bertsolari bat bere atzetik geratzearekin nahikoa du sailkatzeko.

Andoaindik hasita

Ane Labakak lehenengo final zortzirenean kantatu zuen Andoainean, eta batez ere kanporaketa ireki eta ixten zuten saioetan aritu zen ondoen, Ipa-ragirrerren doinuarekin eta bakarka kartzelako gaiarekin; kanporaketan Ane 5. izan bazen ere, final zortziren hauetako saiorik borobilenetakoa izan zen, eta puntuaketarik altuenetakoa izan duena. Adibidez hurrengo egunean Azkoitian irabazi zuen Arkaitz Oizartzabalek berak baino puntu gutxiago eskuratu zituen.

Andoainean kantatu zuen Amaia Agirre ere erraz pasa da final laurdenetara. Andoainean Ane eta Amaiaeren hainbat lagun izan ziren Bastero kultur gunean.

Unai Gaztelumendi (460.5) eta Unai Muñoak (454) ere badute final laurdenetara pasatzeko aukerarik, baina Muñoa sailkatzeko asteburuan kantatuko duten 12 lagunetatik bost geratu beharko dira bere atzetik. Gaztelumendik, hiruk berak baino puntu gutxiago eskuratzen badute, lortuko du txartela eta aurrera egin. •



Manuel Lekuona Kultur Etxean larunbatean 17:30etan kantatuko duen seikotea. Tartean Andoni Otamendi herritarra.

30 BERTSOLARI FINAL LAURDENETAN

2007an finalista izateagatik sailkatuak

Jexux Mari Irazu, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Jon Martin, Iker Zubeldia;

Kanporaketa irabazteagatik sailkatuak

Nerea Elustondo	516.0
Iñigo Mantzizidor Mantxi	500.0
Jokin Uranga	493.0
Beñat Lizaso	480.5
Arkaitz Oizartzabal Xamoa	460.5

Puntuen arabera sailkatuak

Iñaki Gurrutxaga	495.5
Iñigo Izagirre	494.0
Agin Rezola	491.0
Amaia Agirre	482.5
Ander Lizarralde	471.0
Nahikari Gabilondo	469.0
Felix Zubia	464.5

Kantatzeko falta direnak

Lasarte-Oriako kultur Etxean urriak 8 17:30

Uxue Alberdi
Ainhoa Agirreazaldegia
Amaia Iturriotz
Oihana Iguaran
Andoni Otamendi
Iñaki Apalategi

Irungo Amaia Antzokian urriak 9 17:30

Urko Egaña
Iñaki Zelaia
Alaia Martin
Manex Mujika
Asier Sasjeta
Haritz Casabal



Agirre sailkatu da eta Labakak eskura du.

Emaitzen zain daudenak

Ane Labaka	463.5
Iban Urdangarin	461.0
Unai Gaztelumendi	460.5
Oier Aizpurua	456.0
Unai Muñoa	454.0
Xabier Sukia	450.5
Jokin Labayan	449.0
Joxe Munduate	447.5
Ibaitzaso	447.0
Iker Osa	442.5

Aukerarik ez dutenak

Gorka Azkarate	442.0
Egoitz Eizagirre	437.5
Gorka Maiz	435.0
Adur Gorostidi	432.5
Mikel Arrillaga	423.5
Manu Goigana	418.0
Beñat Iguaran	415.5
Asier Azpiroz	408.0